

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. FOTOCAR FUNTSA. KUTXATEKA

GARBITZAILEAK, DONOSTIAKO LOIOLA AUZOAN, 1913. URTE INGURUAN

Lerro hauen gaineko argazkian igar daitekeenez, garbitzaileen lana oso gogorra zen. Maiz, muturreko tenperaturarekin, kasik belaunetaino sartzen ziren errekan aberatsen, hoteletako bezeroen eta «belle époque»-ko garai hartan uda Donostian gozatzen zuten dirudunen arropa garbitzeko. Gainera, kontuan izan behar da garai hartan Loiola auzoko urek ez zituztela higie baldintzak betetzen eta auzoko ur zikinak ere bertara joaten zirela. Garbitzaileek behin eta berri aldarrikatu zuten espresuki beren lana egiteko eraikuntza bat, baina 1928. urtera arte ez zuen inauguratu Donostiako Udalak Loiola auzoko garbitokia.

Ricardo Martinek egindako argazkia 1913. urte ingurukoa da, Donostian, Urumearen erriberan, Loiola auzoan egin. Irudiaren egileak modu apartan jaso zuen bere kamerarekin garaiko Donostiako testigantza; bizitza soziala, hiriaren eraldaketa eta eraikuntza berriak.